

# noaue

**Kabiene: “Telelana ez da guztiaren irtenbidea”**

**Ameba taldeak bere lehen diskoari buruzko xehetasunak eskaini dizkigu**

**Igande honetan, gaztetxoentzako zinea Sutegin: “Asto erregea”**

Argazkia: Cesar Marcos.

**Otsailaren 13an Sutegin**

**“Erradikalak ginen”,**

**Bea Egizabal eta Ane Labakaren eskutik**



Otsailak 13, larunbata

# ERRADIKALAK GINEN

**Antzerki, bertsoa  
eta bakarrizketa**

**Ordua: 18:00.**

**Non: Sutegiko auditorioan**  
**Nori zuzendua: Gazte eta helduei**

sarrerak: aldeaz aurretik salgai 6€tan  
usurbilkultura.eus plataforman.  
Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute  
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

**noqua**



**Bideo konferentziak**



**Whatsapp**

Adinekoentzako ikastaroak

Lau ordukoa  
Talde txikietan, pertsonalizatua eta presentziala  
Nork bere telefonoa ekarri behar du

**Ordutegia:** parte hartzaileei komeni zaienean  
**Non:** kaxkoan eta auzoetan, eskaera nahikoa izanez gero

Izena emateko

**943 37 71 10**



## Albisteak iruditan

## “Ez dago eskubiderik”

Urtarrilaren 28an kexu hau jaso genuen NOAUA! Kultur Elkartearen posta elektronikoan: “Eskola ondoan azken egunotan kamioi handiak daude aparkatuta, gainera, zabalak direnez errepidea hartzen dute. Baratzaldean leku libre nahikoa izaten da horrelako kamioientzat”.

Ez dago eskubiderik goiburua zuen emailak, eta idatziarekin batera hainbat argazki zetozen. Bi kamioi ageri dira hainbatetan. Estraperlo kalean aparkatuta daude, Olarrondo jatetxearen eta Uda-erregi ikastolako biribilgunearen arteko errepidean. Aparkalekuak autoen neurri-eraginak daude eta kamioiak zabalagoak direnez (argazkiari begira, agerikoa da), autoen zirkulazioa baldintzatzen dute.

Irakurle honek, alternatiba gisa, “baratzaldean” aparkatzeko iradokizuna egiten du. Olarrondotik gertu dagoen Usurbilgo Baratzalde Parkearen ondoan.



Kexu, ohar edo dena delakorik igortzeko, [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera idatzi.

## Laburrean

## Usurbil eremu horitik laranja igaro da

301'20ko intzidentziarekin eremu laranja igaro zen aste hasieran Usurbil. Iragan astean 14 Covid-19 kasu atzeman ziren. Udalerrri mugakideak eremu gorrian dira, 500etik gorako intzidentziarekin.

## “Biohondakinen kudeaketa”, Hobekiren jardunaldia

“Biohondakinen kudeaketa: nola gaude eta zer egin dezakegu?” jardunaldia antolatu du Usurbilgo Udala kide duen Hobeki Elkartek otsailaren 17rako Oñatin. Streaming bidez jarraitzeko aukera izango da. Izen-ematea [hobekielkartea.eus](http://hobekielkartea.eus) atarian.

## Sortzaileentzako Udalbiltzaren beka deialdia

Udalbiltzaren “Geuretik Sortuak” beka deialdirako eskabideak aurkezteko epea otsailaren 5ean amaituko da. Eleberri laburrak edo ipuinak, antzerki obrak edo film laburrak diruz lagunduko dira. Informazio gehiago, [udalbiltza.eus](http://udalbiltza.eus) atarian.

# noaua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) /// [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:  
Idoia Torregarai.  
Aldizkari koordinatzailea:  
Imanol Ubeka.  
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.  
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:  
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

Banaketa: Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
Tirada: 2.930 ale.  
Lege-Gordailua: SS-668-96  
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



## Gipuzkoako Foru Aldundia





Ainhoa Azpiroz Eizmendi

## Kontu meteorologikoak ala kontu mete-oro-ilogikoak?

-Eguraldi txarra omen dator.  
-Hara, zu ere berdin, gaur egungo iragarleak bezala, txarra, ona... Zer da ba eguraldi "txarra"? Eta eguraldi "ona"?

-Beno, ba eguraldi txarra da euria egitea, hotza, haizea...

-A bai? Ba baserritarrek gustura hartzen dute ba batzuetan! Euriak ezin du txarra izan, lurak behar du, belarra haztea nahi baldin badugu euria behar da, eta zer esanik ez baratzean. Kaleko txiza usainak ere ederki garbitzen ditu euriak. Niri gustatzen zait euria egitea, euria ari duenean leihotik begira egotea edo korrika egitera joatea. Bai, gustatzen zait, eta horrexegatik ez nago ados horri eguraldi "txarra" deitzearekin.

-Orduan, zuk euria egiten duenean eguraldi "ona" egiten duela esango zenuke?

-Ez, hori ere ez. Eguraldi iragarleek deskribatu egin behar dute, eta ez baloratu. Deskribatu, eta gero bakoitzak esango du eguraldi klase hori beretzat "ona" edo "txarra" den. Eta... azkenaldian balorazio gehiegi egiten dituztelakoan nago: "kontuz hotzarekin", "tenperaturak behea joko dute", "gaur etxean egoteko eguraldia egingo du", "okerrena pasa da", "Gipuzkoa izoztuta", "eguraldi makurra gaurkoa", "ea lehenbailehen pasatzen



Eguzkia, ekaitza, ostadarra... zer da eguraldi "ona" eta zer "txarra"?

### AINHOA AZPIROTZ

**"Eguraldi iragarleek deskribatu egin behar dute, eta ez baloratu. Deskribatu, eta gero bakoitzak esango du eguraldi klase hori beretzat "ona" edo "txarra" den"**

den"... Horrelakoak entzuten ditugu, balorazioak eta gomendioak, eta larrialdi tonu batekin, sarritan. Horren partez zera esan beharko lukete: "Gaur zero azpitik hiru gradu egiten ditu", "fronte baten eraginez euria egingo du", "elurra 600 metrotik gora espero da"... Gero bakoitzak erabaki dezala etxean geratu edo aterkia hartuta atera. Edo hori eguraldi "ona" edo "txarra" den.

-Baina ez didazu ukatuko informazioa edukitzea ondo ez

dagoenik, ezta? Lehen baino datu gehiago dituzte eta xehetasun askorekin egiten dituzte iragarpenak, eta hori ondo datorkigu. Esate baterako, elurra egiten baldin badu errepideak nola dauden eta mendateak itxita dauden edo ez jakitea ondo datorkigu.

-Bai, noski, informazio hori ondo datorkigu eta ondo deritzot horren berri ematea. Baina, ez al zaizu iruditzen askotan lekuz kanpo kokatzen direla?

-Ez dizut ulertzen. Zer esan nahi duzu?

-Gauza bat dela elurragatik errepideak nola dauden esatea eta beste bat Etxegaraten edo Aralarren urtarrelean elurra egin duela esan eta esan aritzea, egunkarietako lehen orrialdeetan agertzea, iratiak orduro hori errepikatzea eta telebista kate guztiek berriemaile berezia bidaltzea bertara. Gelditu eta pentsa ezazu

hamar segundoz: urtarrelean elurra Etxegaraten. Urtarrelean. Negu bete-betean. Oso gauza normala da, ohikoa. Abuztuan egingo balu, orduan bai notizia izango litza-tekeela, baina urtarrelean... Ohikoa ezohiko bihurtzen dute titular horiekin. Iparra galtzen ari gara.

-Bai, arrazoi duzu. Urtarrelean elurra egitea ezohiko notizi bezala agertzen dute, eta udan bero egitea berdin: "Bero olatua dator", "etxetik ez ateratzeko gomendioa egiten dizuegu", gaur eguraldi 'ona' izango dugu"...

-Eguzkia eta beroa beti "ona" balira bezala. Ni hobeto ibiltzen naiz eguraldi freskoarekin, eta tarteka lainotzen badu, kalterik ez. Kortatuk aspaldi esan zuen: "La asamblea de majaras ha decidido: mañana sol y buen tiempo". Horregatik esan dizut lehen; gauza bat da deskribatzea eta beste bat baloratzea. Niretzat ona dena agian zuretzat ez da, eta alderantziz. Eta hori ez lukete nahastu behar eguraldi iragarleek. Hortxe dago koska.

Eta hor jarraitu dute bi lagunek paseoan, euripean, 9 graduko tenperaturarekin, bata beroki potoloa jantzita eta bestea jertse mehearekin, bakoitza bere termostato propioak esaten dionaren arabera.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

### Komikia



# Sarek hartu du lekukoa

Iragarria zegoen lekuko al-daketa gauzatu da; 47 urteren ostean lehen aldiz Usurbil errepresaliatu politikorik gabeko udalerrian bilakatu denean, bere ibilbidea amaitutzat eman du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Sarek hartu du lekukoa eta azken urteotan herrian lanean zebilen bilgune honek deitu zuen iragan ostiraleko euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.

Eta hala egingo du baita aurrerantzean, “Euskal Herriko 218 preso eta dozenaka iheslariren eskubideen aldarrikapenean jarraitu ahal izateko. Beraien eskubideen etengabeko urraketa salatzeko, hilabetero zuekin batera Euskal Herriko beste hainbat plazetatik bezala Usurbilgo plaza honetatik ere”.



Aurrerantzean, Sarek antolatuko du hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Lekukoa hartuta, Usurbil errepresaliatu politikorik gabeko udalerrian bilakatu duen familia izan zuen gogoan Sarek. “Zorionak Olatz, Patxi, Xua eta Maddi! Lortu duzue pultsera demoniyua, elkarrekin Usurbilen etxean egunero eta gauero ere. Bihotz bihotzez eta denon izenean, zorionak!”, adierazi zieten txalo artean Mikel La-

boa plazan bildutakoek. Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herrikideak Aranjuezko espetxetik irteteko lehen baimena eskuratu eta Martutenera lekuz aldatu zituztenetik Olatzek ez du espetxera bueltatu behar izan pultsera telematikoa jarri ziotelako. Patxi bai, astelehenetik ostegunera bertan lo egin behar izan du, orain arte.

Egunotan Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak aditzera eman duenez, Urangari ere pultsera jarri diote eta etxean lo egin dezake. “Baldintzapeko askatasun-eskaerari buruz oraindik ez daukate berririk”.

## “Eskubide guztiak pertsona guztientzat”

Usurbilen errepresaliatu politikorik ez da jada, baina bai Euskal Herrian, 218 preso eta dozenaka iheslari. “Hilabetero azken ostiralean larriki gaixo dauden preso askatasuna, 65 urtetik gorakoena, motxiladun umeekiko askatasuna, urruntzearen bukaera... Hau da, eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarrikatzera gonbidatuko zaituztegu!”, iragarri du Usurbilgo Sarek.

## Ika-mika

### Bi zehaztasun

Joan den astean orri hauetan bertan argitaratutako erreportajearen harira, Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak zera argitu nahi du:

1-Usurbilen, azken 47 urtetik lehenengoz errepresaliatu politikorik ez dagoela baieztatu dugunean, betiere Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga oraindik ERABAT aske ez

daudela ñabardura egin ostean izan dela. Izan ere, beren zigorra datorren ekainean bukatuko dute guztiz. Edonola ere, biek ala biek ez daude jada giltzapean espetxetean, kalean baizik, pultsera telematikoaren kontrolpean.

2-Argazkian agertutako senideak Usurbilen Nahi Dituguren eta aurretik Etxerat eta

Senideak elkarteetan jardundakoak direla, hots 1991etik aurrera preso, errefuxiatu eta deportatuen senide bezala elkarte bereziak sortu zirenetik. Horrek ez du esan nahi aurretik Usurbilgo preso eta iheslariak eta beren senideek ez zutela elkartasuna eta babesik jaso, jakina. Herriarren, udalaren, talde eta

elkarteen laguntza beti izan dute eta, batez ere, alor horretan lan eskerga egindako Amnistiaren Aldeko Batzordea, Askatasunarena eta Herrirarena. Milesker berriro guztiei.

## Usurbilen Nahi Ditugu! elkarteak

## Ika-mika

### Ez daukate lotsarik

Kaixo, gaur (urtarrilak 30) berriro Ucinen teilatuen zirrikituetatik ke isurketa...

Eta ez Eusko Jaurlaritzak ezta Udalak ere (biek dauzkate esku-menak) ez dute ezer egiten. Uda-

lak ezta salaketak erantzun ere. Ez daukate lotsarik. Gure alkateari ahoa betetzen zaio erraus-tegia dela eta gardentasuna eta kutsadura aipatzerakoan baina Ucinekin Udalaren gardentasuna eta kontrola non dira? Salaketa

bakar bat ere ez du erantzun, espedienteen informazioa ezkutatu eta Euskadiko gardentasun batzordeak informazioa ematera behartu du. 4 urte izan ditu bere baimena lege berrira egokitzeko, kontrol zorrotzagoak eskatzen

dituen legera. 3 urtez segidan eskatu diogu baimena egokitzeko. Legea ekainetik dago indarrean eta Udalak ez du baimena egokitu.

## Anerreka Ingurumen Elkarteak

# Eztabaida bizia, Elkar-Gureak proiektuaren bueltan

Dakizuenez, “Elkarrek ez du aurrera jarraituko Usurbilgo proiektuarekin”, berri eman zuen Elkar Taldeak, Gureak-ek eta Udalak duela bi aste argitaraturiko ohar bateratuak. Era berean, “aterabide berri bat lantzen ari gara”, iragarri zuten.

Ohar hau plazaratu bezperan, EAJ-k gai honi buruz galdetzeko eskaria erregistratu zuen udaletxean eta aldi berean NOAUA!ra oharra igorri zuen, Elkarrek bere erabakian atzera egin eta egoitza Usurbila ez zuela ekarriko aditzera emanez. Gaia urtarrilaren 25eko ezohiko udalbatzarrera eraman zuen EAJ-k. Gogoeta moduan irakurri zuten testuan “beharrezko baimenak lortzeko unean”, bereziki, “hirigintza gaiei lotutakoak direnean” bidelagun baino oztopotzat jotzen dute Udalak. Udalerrri hau etorkizuneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten ari den honetan, “araudi nagusi hau egungo errealtaterako egokitzeke unea dela deritzogu,



EAJ-k Zapategi eremuko egitasmoari buruzko gogoeta bat eraman zuen urtarrilaren 25eko ezohiko udalbatzarrera.

## EAJ-REN ESKAERA

**Errealismo ariketa bat egitea eskatu zion EAJ-k udal gobernu taldeari “eta etorkizuna ikuspegi errealista horretatik proiektatzea”**

datozen urteetarako Usurbilgo etorkizunaren norabidea markatuko digulako”. Errealismo ariketa bat egitea eskatu zion EAJ-k udal gobernu taldeari “eta etorkizuna ikuspegi errealista horretatik proiektatzea”.

Horren guztiaren adibidetzat

jarri zuten jeltzaleek Zapategi eremura etortzekoak ziren Gureak eta Elkarren proiektua. Jeltzaleen esanetan, “izapidetza-denbora luzeegiek urratu egiten dituzte” merkatuaren eskakizunetara nahiz egoera berriek eskatuta egin behar dituzten egokitzapenak. Gaineratu zuten, “udal baten eskakizun partikularrek asmo onak izan ditzakete, baina egitasmo bat ez gauzatzera eraman gaitzake, batez ere gertu ditugun udalerrietan baldintzak hobek badituzte edo tramiteak bizkorragoak badira”.

**EAJ: “Garbi dago Adunan zerbait hobeto egin dutela, azkenean Elkar bertan kokatzeko”**

Usurbilgo EAJ-k indarguneez nahiz ahulguneez hausnartzera deitu zuen udal gobernu taldea, proiektuak gauzatzekoan “bidelagun” izatea eta “ez oztopoak ipintzen dituen” eskatzearekin batera, bereziki baimenak lortzerakoan. EAJ-k ondorioztatzen duenez, “garbi dagoena da Adunan zerbait hobeto egin dutela Usurbilen baino, azkenean Elkar Fundazioa bertan kokatzeko”.

## Alkatearen esanetan, baimenen gaiak ez du zerikusirik izan

Eztabaida bizia piztu zuen EAJ-k udalbatzarraren amaieran, “galdera-eskaerak” atalean irakurri zuen gogoeta testu honek. Udal gobernu taldetik alkate Agurtzane Solaberrietak gogoeta horren zati batekin bat egin zuen; ez soilik Usurbilgo Udalak, orohar administrazioan “prozedurak luzeegiak dira toki guztietan” eta “nahiko nuke arinagoak eta eraginkorragoak izatea”, erantzun zuen.

Halere harridura agertu eta jeltzaleei galdetu zien, ia prozedura administratiboak ez betetzeko iradokitzen ari

ote ziren. Duela bi aste, Elkar Fundazioak egoitza Usurbilera ez zuela ekarriko berri emanez NOAUA! bidez zabaldutako testuan, EAJ-k erabaki horren arrazoiez galdetzen zuen, horiek argitzeko eskari bat erregistratu zuela esatearekin batera. Ordurako gai horren berri emana zutela erantzun zuen alkateak udaletxeko barruko batzordeetako batean eta bilera hartara ez zela EAJ-ko ordezkariarik joan. “Informazioa gordetzen dugula iradoki duzue” eta hori gertatzea eskatu zion alkateak EAJ-ri.

“Ondorio faltsuak atera aurretik” galdetu zezaketela adierazi zien alkateak, baina ez dutela ez udal gobernu taldearengana ezta teknikariengana ere jo. Alderdi interesekin jokatzeko aurpegiatu zion jeltzaleei, herrigintzaren alde egitera deitzearekin batera. Proiektu berri baten bueltan lanean segitzen dutela argitu zuen Solaberrietak.

**“EHBildu: Ez gara ezer ezkututzen ari”**

Oposiziotik galderak egitea euren eginkizuna dela erantzun zuen EAJ-k. Berriz ere

udal gobernu taldetik gogoraziti zitzaien, “ateak zabalik” dituztela beti galderei erantzuteko, “ez gara ezer ezkututzen ari”, errepikatu zien Lur Etcheberria EHBilduko zinegotziak.

Baimenen gaiak zerikusirik zuenik ukatu zuen alkateak. “Pandemia etorri da, testuinguru zaila etorri da” baita enpresentzat ere, testuinguru horretan kokatu zuen Elkarren egoitza nagusia Usurbilen ez kokatzeko erabakia hartzea. Baina Udalak, Elkarrek eta Gureak-ek elkarlanean segitzen dutela argitu zuen.

# Eskualdeko tokiko garapenaren aldeko lankidetza hitzarmena luzatuko dute

Beterri-Buruntzaren toki garapenaren, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorrean eskualdeko sei udalek duela lau urte sinaturiko lankidetza hitzarmena beste lau urtez luzatu eta aldatzea onartu zuen udalbatzak aho batez urtarriaren 25eko osoko bilkuran.

Urtarriaren 27a baino lehen onartu behar zuten lankidetza hitzarmenaren luzapena sei udalerrietako udalbatzek. Usurbilgoak aipatu moduan bi egun lehenago onartu zuen. Erabaki hau finkatua zegoen epearen baitan hartu behar eragin zuen hain zuzen, izatez hilaren 28rako deituko zuten udalbatzarra, hiru egun (hilaren 25era) aurreratzea.

Duela lau urte 2017ko urtarriaren 27an Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek “toki garapenaren, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorrean” sinatu zuten lankidetza hitzarmenari buruz ari gara. Lau urteko iraupena zuen hitzarmen hau beste lau urtez luzatzearen eta aldatzearen alde agertu zen udalbatza aho batez.

## “Izugarrizko galera”

Helburu nagusia bete gabe



2017an Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten. Ordukoa da argazkia.

## “Hitzarmena beste lau urtez luzatzearen eta aldatzearen alde agertu zen udalbatza aho batez”

dela luzatuko dute hitzarmena; aurreko lau urteko hitzarmena bertan behera uztea aurreikusten baitzuten, baldin eta ibilbide horretan “eskualdeko garapen agentzia (Mankomunitatea) eratzea adosten bada”. Hala gertatu izan balitz, “hitzarmenaren babesean abian jarritako programak, proiektuak eta zerbitzuak aipatutako Mankomunitatera lekualdatzeko mekanismoak ezarriko” ziren. Helburu berarekin hitzarmen hartan aurreikusitako lau urteko luzapena izan zen udalbatzak iragan astean onarturikoa.

Egitasmoak bide oparoa jorratu duela nabarmendu zuen

Beñat Larrañaga zinegotziak. “30 programatik gora jarri dira indarrean”. Teknikariak eginiko lana goraipatu zuen. Mankomunitatea ordea osatu gabe eta orain arte egindako lanketa kolokan dela ohartarazi zuen udal gobernu taldeak. “Ez dugu adostasunik lortu”, zioen Larrañagak. Eta gaineratu zuenez, “adostasun falta horregatik lidergotza ez da batere eraginkorra izan”. Eta horrek guztiak ondorio nabarmena izan duela ohartarazi zuen; “lautik hiru langile galdu dira, eta laugarrena badoa”. Eta haiekin, “langileon ezagutza” eta baita urteotan eraikitako harreman sarea. “Izugarrizko galera” udal gobernu taldearen esanetan, “ikusteke dago galera horrek herritarrei nola eragingo dien”. Esaterako, abian izan eta amaitu gabe dauden zerbitzu eta programei.

## “Zer gogoetatu eman behar digu denoi”

Udal gobernu taldeak oposiziozko udal taldeei, EAJri eta PSEri zuzenduta adierazi zien, egitasmoak aurrera eramateko erabateko adostasuna zutela “hitzez” baina gero ez ekin-tzez; baliabideak gutxitzearen alde agertu zirela bi alderdiok udal gobernu taldean dituzten Udalak, Lasarte-Oria, Urnieta eta Andoain. “2 langile kon-

tratatzea” defendatzen dutela diote udal gobernu taldeak, orain arte lau taldea zebilen lanean. “Posturak hurbiltzea espero dugu”, gaineratu zuten, borondate politikoa falta izan dela ohartarazita.

Alkate Agurtzane Solaberrietak egitasmo honetan orain arte Andoaingo Udalak hartutako ardura eskertu zuen.

Lau urteko hitzarmenaren luzapenak aurreikusten duenez, “kontratazio berriak egitekotan gainerako udalok” hartuko dute horren ardura. Mankomunitaterik eratu ez eta “tamalez, lau pertsonen galera”, urteotako balantzea hori izateak “zer gogoetatu eman behar digu denoi”, adierazi zuen.

## Aldaketak

### Kalezarko trafikoa

Haurreskolaren sarrera eta Pikaolara arteko tartea urbanizatzen hasi dira eta lanak amaitu arte errepidea itxita egongo da. Aldiz, Kalezartik Txaparren-Berri baserri-arteko bidea irekita dago berriz.

■ Haurreskolaren sarreratik Pikaolara arteko zatia itxita otsailaren 5era arte.

### Kalezar eta Kaxkoa

Behin-behineko semaforoek bideratzen dute kaxkoa eta Kalezarren arteko trafikoa. “Asteotan ez da semafororik izango, aldapa horren noranzkoa bakarria izango baita: behetik gorakoa”. Usurbilera jaisteko, berriz, Kalezarko kaxkoa zeharkatu beharko dute ibilgailuek. “Pikaolaren ondoko aldapan dauden aparkalekuak erabiltzeko aukera izango da”, azaldu du udalak ohar bidez.

## Garbitaniaren

### lan eskaintza

Gidarien lan-poltsa handia-gotzeko hautaketa prozesua abiarazi du Garbitaniak.

### Eginkizunak

Kamioia gidatu eta hondakinen bilketa atez atekoa duten udalerrietan, kamioiaren mantentze lana, ontzi eta posteen garbiketa...

### Bete beharreko baldintzak

- 16 urte beteak izatea.
- Eskola-ziurtagiria edo parekoa izatea.
- Lanpostuko eginkizunak betetzeko gaixotasun edo mugarik ez izatea.
- 1. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.
- C gidabaimena edo balio-kide baten jabe izatea.

Informazio gehiago garbitania.eus web orrialdean.

## Otsaileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

## Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



## ARIES

Azken aldia ez zara kalera ateratzen, ez duzu ia inorekin hitz egiten eta sofa zure gorputzeko beste atal bat bilakatu da.

Hileko aholkua: Gauza bat da herritik ezin ateratzea eta beste bat zure bizitza perimetralki ixtea!



## CANCER

Terrazan egoten zara lagunean, terrazan hartzen dituzu pintxoak, terrazan pozik zaude...

Hileko aholkua: Argi dago; terrazak dira zure territoriorik libre bakarra.



## LIBRA

Otsailaren 14a maiteminduen eguna, baina pandemiak ez du nahi zure azukre koxkorarekin egon zaitezten.

Hileko aholkua: Lanean egin dezakezue zita, edo unibertsitateko pasilloetan, edo leporaino beteta datorren trenean. Ez esan ez denik erromantikoa izango!



## CAPRICORNIUS

Mendiak momentu ederrak emango dizkizu hilabete honetan eta Bordatxo eta Andatza zure etxeak bihurtuko dira. Hileko aholkua: Horrek ez du esan nahi pijamarekin joan zaitezkeenik bertara!



## TAURUS

Estresatuta zaude eta zerbait egin behar duzu hori konpontzeko: yoga, mindfulness edo errebotean jokatzeko hasi.

Hileko aholkua: Baina mesedez, semaforoa berdean jartzen denean aurrekoari EZ jo tutua lehenengo milisegunduan!



## LEO

Txotx garaia bitxia izango da, kupelez kupel ezingo baikara ibili. Hileko aholkua: Mahaiaren bueltan egon beharko dugunez, noizean behin TXOTX esan, zutitu, pitxarra altxa eta edalontzietara bota sagardoa kupeleko txorrotak balitz bezala. Ez da berdina, baina ondo pasako duzue hala ere.



## SCORPIUS

Maskarilla eramateaz kokoteraino zaude, baina zein ondo etortzen den hotz asko dagoenean sudurra berotzeko! Hileko aholkua: Erosi ezazu bat artilezkoa eta ikusiko duzu ze goxo ibiliko zaren!



## AQUARIUS

Aurten zure urtebetetzean irudimen handia erabili beharko duzu. Hileko aholkua: Denekin batera elkartu ezin duzunez, pentsatu duzu aste horretako egun bakoitzean lau lagun desberdinekin ospatzea? Askoz hobeto!



## GEMINI

Santa Ageda, Ageda... bihar da Santa Ageda, bihar da Santa Ageda eta gaur konfinamendu gaua... Hileko gomendioa: Atera makilak balkoira! Bat, bi eta hiru... IEUP!



## VIRGO

Aurten ezingo ditugu inauteriak ospatu, baina horrek ez du esan nahi uko egin behar diogunik moztarrotzeari. Hileko aholkua: Maskarilla, txapela, eguzkitako betaurreko batzuk jarri eta ezetz inork ezagutu!



## SAGITARIUS

Ez dira garai onenak ligitzeko, are gutxiago herritik atera ezin dugunean, baina izarrak zure alde daude. Hileko aholkua: Tinderren bost kilometroko distantzia jarri ;)



## PISCIS

Dietan jartzea pentsatzen zabalitza aspaldidanik, gorputza kili-kolo duzulako. Zergatik ez zara kozinatzen hasten? Hileko aholkua: Baratxuri zopak gaitz guztiak sendatzen dituela esaten dute!



**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patri**  
Patri 2022  
jateitxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361



# “Urte historiko baten aurrean gaude”

Euskal Herrian nazioarteko hainbat txapelketa ospatzen diren arren, “ez du ordezkariarik” hitzordu hauetan. Baina urte amaieran Euskal Futbol Federazioak FIFAn eta UEFAn euskal selekzioa nazioartean onartua izateko eskaera aurkeztu zuen. Abiatu berri duguna ofizialtasuna egi bilakatzeko bidean urte gakoa izan daiteke, “urte historiko baten aurrean gaude”, zioen euskal selekzioen ofizialtasunaren alde lanean diharduen Gu Ere Bai elkarteak. Testuinguru horretan kokaturiko batzar nazionala egin zuen iragan larunbatean Sutegin.

“Borrokatzeko urtebeteko epea daukagu”, adierazi zuen elkarte kide Patxi Gaztelumendik. Horretarako, aktibazioa sustatu beharra dagoela dio Gu Ere Baik. “Ofizialtasuna nazioarteko kirol bulegoetara heltzen ari da, eta hori guztia aktibatzea dagokigu guri maila sozialean, kirol mailan, federazioan, kultur eta kirol elkarrean...”. Nabarmendu zuten, “munduan potentzia bat izan gaitezke kirol mailan ere”. Garraztatsutzat jotzen dute, gai hau “hizkuntzarekin, herritar-tasunarekin, eskubideekin, nazio-gintzarekin” lotzea.

## “Zuekin bat egiten dugu”

Elkarte kideei Usurbilgo kirol ordezkariak batek eman zien ongi etorria frontoian. “Usurbilgo herriari eskerrak”



Gu Ere Bai elkartearen batzar nazionala Sutegin batu zen aurreko larunbatean.

## GU ERE BAI

**“Ofizialtasuna nazioarteko kirol bulegoetara heltzen ari da, eta hori guztia aktibatzea dagokigu”**

eman zizkien Gu Ere Bai elkarteak batzar nazional hau antolatzea errazteagatik. “Euskal selekzioen ofizialtasunaren alde gaudenez, hemen zuekin bat egiten dugu”, adierazi zuen herriko kirolarien izenean Xabier Mikel Errekondo alkate ohi eta eskubalo jokalaria izandakoak.

## Berandu baino lehen

“Euskal Selektzioa ofizialtasuna! Euskal Herritik mundura” aldarria zuen pankartaren bueltan bildu ziren, besteak beste: Esther Arrojeria, Lur Errekondo eta Leire Furundarena eskubalo jokalariek, futboleko aritutako Imanol Agirretxe, Jon Irazustabarrena eta David Asensio, Xabier Santxo pilotaria edota herri kirolen taldeko ordezkariak. “Kirolari, herritar eta euskal herritar be-

zala animatzen zaituztegu denok bat egiten dugun aldarri horrekin lanean jarraitzea”. Eta noizbait, “berandu baino lehen” euskal selekzioen ofizialtasuna egi bilakatzeko nahia agertu zuten.

## “Ez diezagutela esan ez denik posible”

“Usurbil ofizialtasunaren atarpe izateagatik” pozarren agertu zen Gu Ere Bai elkartearen Sutegiko batzarraren hasieran hitza hartu zuen Usurbilgo Udaleko udal gobernu taldeko ordezkari Beñat Larrañaga. Gai honekin ere Usurbil herri

konprometitua dela adierazi zuen.

ESAIT-ek eginiko lan oparoa hartu zuen gogoan, gerora alor honetan izan den hutsunea dela eta pozgarritzat jo zuen Gu Ere Bai elkartearen sorrera, are gehiago une honetan-txe bizi dugun testuinguru zail honetan. “Asko dago egiteke” eta bide horretan batzarra mugarri izateko desioa agertu zuen. “Gure eskubidea da gure elastikoak defendatzea, baina eskubideak nekez lortzen dira alde aurretik borrokatu gabe”. Esparru desberdinetara zabaldu beharreko borroka dela uste du Larrañagak. Gizartea aktibatzeke beharra ikusten du, eta horretarako erakundeak elkarlanera deitu zituen, “defenda dezagun gurea, euskal selekzioen ofizialtasuna”. Aitortza hau eskuratzeko bidean, “ez diezagutela esan ez denik posible”. Gales, Eskozia edota Kosovo jarri ditu adibide gisa. “Eta gu? Gu ere bai”.

## Itoitz Rodriguez, bitan txapeldun

Azken asteotan bi txapelketetan nagusitu da usurbildarra. Gipuzkoako txapeldun pista estaliko 400 metroan. Eta pasa den asteburuan, Itoitz Rodriguezek berak sare sozialen bidez berri eman zuenez, “Euskadiko txapeldun! Aste-bete beranduago beste lorpen handi bat. Marka ezin izan da hobetu, baina 48 azpitik berri ere, oso pozik”.



400 metroko proban, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu.

**ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA**  
MARKA GUZTIAK  
DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!  
645417665  
xabier

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

**GRUPO MONROY**  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
628 45 78 39  
reformasmonroy@hotmail.es  
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

# “Erradikalak ginen”, umore zirikatzailea gaitegi berriarekin

**E**rradikaltasunaren erroetara bidaiatzera gonbidatu gintuzten lehen emanaldi hark harrera ezin-hobea izan ostean, bueltan datoz NOAUA! Kultur Elkar-tearen eskutik otsailaren 13an 18:00etan Sutegira Ane Labaka eta Bea Egizabal Lasarte-Oriatik, bigarren “Erradikalak ginen” saioarekin.

Emanaldirako sarrerak 6 eurotan eskura ditzakezue aurrez usurbilkultura.eus atarian. NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan kultur elkartearen egoitzan. Feminismoa zeharlerrotzat hartuta umoretik pil-pilean diren hurbileko gaiez (“neska gazte promesa” etiketaz, zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, interseksionalitateaz, beldurraz, biolentziaz...) zer hausnartua emango digute. Argi diote; “erradikalak ginen, gara eta izango gara”.

**NOAUA! “Erradikalak gara” emanaldi haren bigarren zati bezala, haren jatorrirako bidaia gisa aurkeztu daiteke “Erradikalak ginen”?**

**Ane Labaka:** Bada Beak eta nik batera egin dugun bide horren bigarren geltoki bat edo. Egia da aldi berean independenteak direla. Lehenengo horretan bai eduki genuela sentsazioa nolabait formatuarekin edo asmatu genuela, guk nahi genituen gai



Feminismoa zeharlerrotzat hartuta, umoretik pil-pilean diren hurbileko gaiez zer hausnartua emango digute. Argazkia: Cesar Marcos.

## ANE LABAKA

**“Bigarren honetan formatua mantendu eta gaitegi berria txertatu dugu”**

horiek lantzeko bide ematen zuela bakarrikzaketak eta bertsoak uztartzeak. Bigarren honetan formatu hori mantendu eta gaitegi berria txertatu dugu.

**Bigarren zatiak inoiz ez direla lehenengoak baino hobekak izaten, baieztapen horrekin hautsi nahi duzue, ezta?**

Esaldi horrekin eta bigarren zatiek eragindako presio ho-

rrekin ere bai. Lehenengoak bere arrakastatsoa izan zuen, harrera oso ona izan zen. Ia 100 emanalдитik gora egin genituen. Hortik abiatzen zarenean, eta badakizunean jende bat behintzat lehenengoa ikusita horren zain dagoela, ez duzu maila horretatik jaitsi nahi. Esplizitu egiten dugu obraren une batean bigarren zatiek eduki dezaketen espektatiba eta presioa.

**Erradikal hitzaren erroetara jotzeko nahia zenuten. Izenburuari eutsi diozue, oraingoan, aditza egokituta.**

Erroetara jo eta aldatzen saiatu gara. Erradikal hitza askotan

zentzu txarrean edo peioratiboan erabiltzen da eta ez du zertan. Zer esanik ez emakumea baldin bazara, kexatu edo aldarrikatu dezakezu ezarritako neurrien barruan baina erradikalegia izan gabe, pasa gabe. Guk sinesten dugu eraldaketa erroetara joaz etorriko dela etortzekotan. Egungo egoera zein den bistaratzen saiatzen gara, eta benetan erradikalak garela edo askoz erradikalagoak izan beharko genukeela. Oraingoan aditza aldatuta izenburua mantendu nahi genuen jendeak ulertu zedin, bigarren zati bat izango zela eta horren inguruan gogoetatzen dugu berriz ere.

## “Harimutur asko ukitzen dira”

**NOAUA! Emanaldiak hautsi ditu publikoak izan zitzakeen “eskemak”?**

**Ane Labaka:** Beak eta nik askotan esaten dugu gure emanaldian zehar, ispilu moduko batzuk jartzen dizkiogula

publikoari eta ispilu horren islatik jasotzen du batzuetan ikusi nahi duena, baina beste askotan ikusi nahi ez duen hori. Orduan gero etxeko lanekin bidaltzen ditugu batzuk etxera.

**“Bitan edota hirutan ikusi duenik bada”**

**Lehen emanaldian jasotakoak bultzatuta, errepikatu duenik izan da?**

Bai, askok bitan eta batzuk hiruzpalau aldiz ikusi dute

gure saioa, eta aldiro esaten zuten, mamitsua zela oso. Harimutur asko ukitzen dira eta bigarren batean ikusteak esandakoari edo bertsoei arreta gehiago jartzea ahalbidetzen die.



# “Asko gustatzen zaigu Usurbilgo aretoa”

**NOAUA! “Erradikalak ginen” lanarekin noiztik zabiltzate?**

**Ane Labaka:** 2019ko maiatzean aurreestreinatu genuen Bilbon euskalgintzari eta feminismoari buruzko jardunaldi batzuetan. Azaroan hasi ginen martxan. Iragan urte hasieran emanaldi batzuk eskaini genituen. Martxoaren 8aren buelta agenda topera genuen baina hor emanaldi piloa eten zen. Posible izan den neurrian, zintzilik geratutako dezente berreskuratu genituen urte amaieran.

**Otsailaren 13an Sutegira bueltan zatozte. Zer esan herritarrei emanaldi horri begira?**

Gogoan dut aurreko emanaldia, gainera asko gustatzen zait Usurbilgo aretoa, goxoa da.

Edonori gustatzeko, ukitze-



“Zintzilik geratutako saio dezente berreskuratu genituen urte amaieran”. Argazkia: Cesar Marcos.

## ANE LABAKA

**“Edonori gustatzeko, ukitzeko, aztoratzeko moduko emanaldi bat izan daiteke, ordubete ingurukoa”**

ko, aztoratzeko moduko emanaldi bat izan daiteke, ordubete ingurukoa eta garrantzia berezia hartzen du une hone-tan, denok dugunean behar hori barre egiteko, hausnartze-ko, hitza jartzeko bizitzen ari gare-nari.

**“Mugimendu feministan aldiro sortzen dira galdera berriak”**

“Erradikalak gara” emanal-diarekin hasi zineten, “erra-dikalak ginen” orain... Hiru-garren batekin segida izango du?

Beak eta biok herri bakoitze-ra bidaiatzen goazela denbora asko partekatzen dugu. Le-henengoa egiten ari ginen bi-tartean nahiko naturalki biok kezkatu eta eztabaidatzen ditugun gai piloa atera zen. Apuntatzen joan ginen eta bi-garrenari ekin genionean jada landu nahi genuen gai zerren-da bat genuen. Mugimendu feministan aldiro sortzen dira gai eta galdera berriak. Posible ikusten dut hirugarren zatia, baina orain bigarrena egiten bezala sentitzen gara.

Eskertze-gutuna, eskari-gutuna, salaketa-gutuna, erantzun-gutuna, aldarrikapen-gutuna, kexa-gutuna...

Idatzi zure gutuna eta bidali  
erredakzioa@noaua.eus helbidera!

**noaua**

NOAUA aldizkaria, usurbildarren zerbitzura

# Kabiene: “Pandemia garaiko autogestioa ez da erraza izan, baina horrek indartu gaitu”

**T**elelana eta lan eremuko isolamendua ongi baino hobeto ezagutzen duten Kabiene elkarlan gunean izan da NOAUA!, pandemia hilabeteok nola bizi dituzten jakite aldera. Kabiene sortu zutenetik bertako kide den Julen Arteaga arkitektoarekin, berriki heldu eta diseinu grafikoan lanean ari den Marga Berra hendaia-rrarekin eta Danele Sarriugarte idazle eta itzultzaile elgoibartarrarekin bildu da aldizkari hau.

**Agurru berri dugun 2020. urte ahaztezinaz balantzea egiteko unea. Nolako urtea izan da Kabiene?**

**Danele Sarriugarte:** Inoiz baino ageriago geratu da, gune autogestionatu bat dela Kabiene eta ondorioz, denontzako berria zen egoera bat bizitzea tokatu zaigu. Autogestio hori gure artean erabaki behar izan dugu; neurriak nola hartu, zer egin. Ikasketa prozesu bat izan da. Ez da prozesu erraza izan, 11 pertsona desberdin baikara. Lana nekeza izan da batzuetan baina hori gainditu izanak talde bezala sendotu gaitu.

**Julen Arteaga:** Urteak garbi utzi digu Kabiene beharrezko espazio bat dela eta espazio hau, lantoki autogestionatu bat izanik horrek bere berezitasunak ditu. Horri aurre egin behar izan diogu.



11 pertsona eta 11 proiektu ezberdin daude Kabiene, “eta bakoitzari modu desberdinean eragin zion konfinamenduak”.

## MARGA BERRA

**“Kabiene niretzat argi bat izan da urte ilun honetan, babes toki bat, lan giro gozo bat”**

**Marga Berra:** Kabiene ez dut ezagutu pandemia aurretik eta niretzat argi bat izan da urte ilun honetan, babes toki bat, lan giro gozo bat. Kudeaketa ez da beti erraza izan, halere balorazioa biziki positiboa da.

**Martxoan birus batek konfinatu gintuen. Zuek ederkiki dakizue etxetik lan egitea zer den.**

**Etxera “buelta” hori nolakoa izan zen?**

**J.A.:** Gogorra, txarra. Gainera, etxetik lanean aritzea badakigu zer den. Baina oraingoan, etxetik ezin genuen atera, isolamendu hori are handiagoa zen. Bueltatzeko aukera eman zigutenean denok bueltatu ginen.

**D.S.:** Kabiene pandemia aurretik hasi nintzen etxetik kanpo lan egin nahi nuela erabaki nuelako, eta etxera, telelanera berriro itzultzeak etxetik kanpo lan egiteko espazio bat izaten jarraitu nahi nuela are eta garbiago utzi zidan.

**Pandemiak zer moduan eragin du Kabieneko kide eta proiektuengan?**

**Eta baita noski, elkarlan gunearengan ere?**

**J.A.:** 11 pertsona eta 11 proiektu ezberdin daude, eta bakoitzari modu desberdinean eragin zion. Badago bere lanarekin berdin jarraitu duena bere etxetik, beste batzuei gehiago eragin die. Kabiene gune autogestionatu bezala, martxoan eta apirilean guztiz itxita egon zen eta bi hilabete horietako alokairu gastua kide bakoitzari ez kobratzea erabaki genuen.

**D.S.:** Alokairu gastuentzat, autonomoen kuota, argia... Horrekin ez zen egon berehalako erantzunik eta Kabiene gune autogestionatu gisa kideen alde egin genuen.

## “Denon artean erabaki dugu neurriak nola ezarri”

**NOAUA! Etxetik lan egiteak eragindako isolamendua gainditzeko ahalbidetu du Kabiene urteotan. Pandemiak inoiz baino ageriagoan jarri du egitasmo honen balioa?**

**Marga Berra:** Autogestionarena. Zinez ohartu gara ez dugula nagusirik ze baldintza edo segurtasun neurri bete

behar ditugun esaten diguna. Horretan zinez sentitu dugu autogestionatuak ginela, haia maika pertsona, bizipen eta ikusmolde desberdin. Ez da erraza izan baina horrek indartu gaitu.

**Danele Sarriugarte:** Denon artean erabaki dugu neurriak nola ezarri.

**M.B.:** Aunitz ikasi dugu, autokritika handia izan da, atera dira Kabiene autogestio talde gisa funtzionatzeko modu berriak. Helburua zen denok ongi sentitzea Kabiene. Bakoitzak behar zuen zerbait beretik eman eta inork etxean geratzea nahiago ez izatea zen helburua. Indar handia

zuen talde gisa pentsatzeak. 11 lagun adosteko orduak eta orduak pasa ditugu mintzatzen. Esperientzia zinez aberasgarria izan da eta hor sumatzen da hemen lanean ari garenek zer konpromiso hartzen dugun. Bada besteez gure interes zaintza handi bat.




# “Telelana ez da guztiaren irtenbidea”

**NOAUA! Prebentzio neurri gisa, une batzuetan behartu edota besteetan etxetik lan egitea aholkatu da. Egoki kudeatu al da gai hau zuen ustez?**

**Marga Berra:** Hemen garenok badakigu etxean lan egiten, orain jendeak deskubritu du zer zen eta ikusi dugu jendeak nola bukatu duen. Iruditzen zaigu kudeaketarik ez dela izan, eta jendea ez dela prest, jendea ez delako ohitua espazio berdinean dena partekatzea.

**Julen Arteaga:** Gure ustez ez da kudeatu ez erakundeen ezta enpresen aldetik ere. Egin dena da jendea etxera lanera bidali eta kito. Badirudi Espainia mailan badela telelanaren inguruan lege bat ateratzeko asmoa.

**Danele Sarriugarte:** Ardura norbanakoaren gainean jarri da. Estres handia zen etxera-tzea eta ez zen kontuan hartu. Bakoitzak ahal zuen moduan moldatu behar izan zuen, nahiz eta zaintza sarea eta beste eki-



“Etxera bidali zen jendea lanera, norberak etxean zer baldintza fisiko dituen kontuan hartu gabe. Bakoitzak kudeatu behar izan du”. Argazkia: Kabiene.

## JULEN ARTEAGA

**“Kabien kide bakoitzak bere lan eremu ezberdina du, baina elkar asko laguntzen gara”**

men asko egon.

**J.A.:** Etxera bidali zen jendea lanera norberak etxean zer baldintza fisiko dituen kontuan hartu gabe, bakoitzak kudeatu behar izan du. Telelana ego-

kia izan daiteke batzuentzat, baina ezin da saldu saldu den moduan, guztiaren irtenbidea balitz bezala.

**D.S.:** Eta horretarako baliabiderik jarri gabe, jendea prestatu gabe.

**Bizi dugun osasun krisialdia aurrera begirako ikasgairik uzten ari al da zuen lan eremuan?**

**J.A.:** Pandemia honek lehenetik bagenituen hausnarketa edo

ideia batzuk indartu egin ditu.

**D.S.:** Gure erabakiak izaten du jarraitzen eta pandemia garai honetan berretsi da, espazio bereizi bat, lantokia izatea ona dela osasunerako, langileen arteko elkartasuna bultzatzeko.

**M.B.:** Pandemia garaian batzuk ordu batzuk etxetik lan egitea aunitz eskertu dute. Baldintza egokiak izanda, telelana gerora begira aterabide bat izan daiteke.

**J.A.:** Ados, baina “miragarritzat” saldu den telelanak bere arriskuak ditu; langileen arteko elkartasuna errazago apurtzen da. Oso “interesgarria” da zure etxera zure ordenagailu eta Internetarekin joatea, argindarra zuk ordainduz, lan bera edo gehiago eginez, eta lankideekin duzuen konexioa galduta. Kabien kide bakoitzak bere lan eremu ezberdina du, baina elkar asko laguntzen gara. Autonomo gisa arazo komunak ditugu eta Kabienek horretan pila bat lagundu digu.

## Kide eta proiektu berrientzat zabalik

**NOAUA! Une honetan zenbat kide eta zer nolako proiektuen kabia da zuen elkarlan gunea?**

**Marga Berra:** Diseinu grafikoan nabil. Ainara Azpiazu “Axi” ilustratzailea da; Joseba Larratxe ilustratzailea; Maialen Garagarza itzultzailea; Danele Sarriugarte itzultzailea.

**Julen Arteaga:** Hiru arkitekto ditugu; Dani Carballo bere aldetik dabil eta Antton Korta eta ni batera.

**Danele Sarriugarte:** Yolanda Arrieta idazlea; Ibai Arrieta argazkilaria; eta Nekane Orkaizagirre diseinatzaile grafikoa.

**J.A.:** Webgune berrituan dituzue xehetasunak. 11 gaude, batzuk hasieratik. 16 kide izatera heldu ginen. Batzuek bizitza aldatu eta Kabiene utzi dute, kide berriak sartu dira. Baina Kabienek proiektu bezala martxan segitzen du. Lehen

beharrezkoa ikusten genuen eta pandemia honek are eta gehiago areagotu du behar hori.

**D.S.:** 11 gara, kide gehiagorentzat oraindik tokia dago eta guk gustura hartuko genuke.

**Norentzat izan liteke egokia?**

**J.A.:** Zure kontutik lan egiten baduzu eta behar duzuna baldin bada mahai bat eta ordenagailu bat, Kabiene zabalik duzu.

**D.S.:** Aipatu hausnarketa horiekin guztiekin identifikatua sentitu den norbait, edo etxean lan egiteaz kokoteraino dagoena.

**“Hasiz Hazi” beka izan daiteke sarbideetako bat. Zer nolako balantzeara egin dezakezue beka deialdi honen inguruan?**

**J.A.:** Bekak lau urtez martxan darama. Jende ezberdina pasa izan da hemendik. Balorazio positiboa egiten dugu, baina

lau urteok hobetzeko eremuak badaudela erakutsi dute. Beka hau oso bideratua dago hasiberriei eta agian luzapen baterako aukera izan behar du. Gure hobekuntza proposamenen azterketa Udalarekin partekatu dugu. Hasiz Hazi bekak beritasunak izango ditu; deialdia jende gehiagorengana iristea da gure helburua.

**Aurreikuspen zehatzik egitea ezinezkoa dirudien honetan, zer nolako 2021a espero duzue Kabienek?**

**M.B.:** Pandemiak indartu gaitu eta aski esperantzarekin hasi dugu urtea, gogotsu talde gisa eta Kabienen. Pertsonalki autonomo gisa batzuentzat urte zailagoa izango da besteentzat baino.

**J.A.:** 11 pertsona gaude eta nahiko genuke jende gehiago

erakartzea.

**Aniztasuna dario Kabieneri lan arloetan, jatorria...**

**J.A.:** Bere garaian 2 emakume eta 9 gizon izatera heldu ginen. Errealitatea nola irauli lantzen hasi eta egun 6 emakume eta 5 gizon gara.

**D.S.:** Kabieneko irizpideetako bat bertako kideek euskaraz ulertu behar dugula da. Konpromiso hori oso presente dago eta datozen kideekin hori aberasten eta indartzen jarraitzen dugu. Irakurketa talde bat osatu dugu. Hilero liburu bat irakurri eta komentatuko dugu.

**J.A.:** Kabiene espazio fisiko bat izateaz gain, babes sare bat sortu dago. Gure artean giro oso ona dugu eta lantokian espazio egokia izateaz gain, hori lagungarria da.

# “Elikatuz” dator Ameba disko berriarekin, Sutegiko aurkezpen kontzertura

Aurrekaririk gabeko pandemia betean, bide ezin emankorragoa jorratzen ari dira. Testuinguru zail honetan hasieran ezinezkoak ziruditen zenbait kontzertu emateko moduan izan dira eta uste baino azkarrago disko berri bat Garaten grabatu eta argitaratu dute. Bide horretan jasotakoaren emaitza da orain bueltan publikoarekin partekatu nahi dutena; hortik, estreinako diskoaren izena, “Elikatuz”. Otsailaren 14an aurkeztuko dute 17:00etan Sutegin. Emanaldi-rako izena doan eman dezake-zue usurbilkultura.eus atarian.



“Musikarengatik dugun zaletasunagatik bildu gara baina baita herriko mugimendu honek eman digunagatik”. Argazkia: Lurdes Hueta.

**NOAUA! Jaietako Bertsio Gaua izan zen taldearen sorrerako pizgarria; iazko Kultur Bira disko honena?**

**Malen Azpiazu:** Kultur Biran parte hartzeko proposamena egin zigutenean kanta gutxi-ekin eta sortzen ari ginen, baina motibatu eta kontzertua eskaintzea erabaki genuen. Oso harrera ona izan eta denbora genuela ikusita, ausartu eta diskoa grabatuko bagenu? Apustua egin genuen kanta sortu berriekin, lan pixka bat egin eta Garatera igo ginen.

## AMEBA

**Otsailaren 14an aurkeztuko dute ‘Elikatuz’ diskoa Sutegin. Sarrera doan, usurbilkultura.eus atarian eskuragarri**

**Jon Mikel Azpiazu:** Gure asmoa lehen uda hori kontzertuez betetzea zen, eta modu horretara hastera. Egoera arraro honek ordea bultzatu du diskoa hain azkar argitaratzea.

**Grabatzera joan aurretik zen-**

**bat kontzertu eskaini zenituzten?**

**J.M.A.:** Estudiora sartu aurretik bakarra. Abuztuan sartu ginen. Uda topera entseatzeko baliatu genuen. Gure kanta gure kabuz grabatu, entzuteko.

**M.A.:** Garaten 8-10 bat egunez grabatu eta biharamunean, Atxegaldeko jai egokituan jo genuen.

**Enara Eizagirre:** Inondik ez zigutela deituko uste genuen. Baina denera sei bat kontzertu eskainiko genituen.

**Aritz Zabaleta:** Gerora uste baino gehiago atera zaizkigu.

**“Elikatuz” da zuen estreinako lanaren izenburua.**

**J.M.A.:** Lehen aipatutako taldearen sorreragatik jarri diogu izenburua. Musikarengatik dugun zaletasunagatik bildu gara baina baita herriko mugimendu honek eman digunagatik. Bestela ez ginen elkartuko.

Horrek guztiak elikatu gaitu eta eskertza moduan, sortu dugunarekin orain gure inguruko herri mugimendua, gazteak elikatu nahi ditugu.

**A.Z.:** Ameba izeneko kantan ere presente dago.

## “Kanta guztiak dira desberdinak”

**NOAUA! Aditzaren forma zein den ikusita, elikatzen jarraitzeko asmoz zarete?**

**E.E.:** Ahal dugun eta uzten diguten heinean gogotsu gaude.

**J.M.A.:** Guztia ilun ikusten den honetan, aurrera jo eta gauzak egiteko gonbita, ilusio pizgarri bat da.

**Aurkezpen bira iragarri duzue, baina testuinguru honetan nola daukazue enfokaturik bira hori?**

**A.Z.:** Gure eskaintza toki askotara bidalia dago. Toki dezentetatik egoera zaila dela baina gure proposamena kontuan hartzen dutela erantzun digute. Ziurgabetasun handia dago.

**E.E.:** Lokalak ere diruz ez dabilta ondo. Oñatin joko dugu uzten badigute behintzat.

**J.M.A.:** Egungo gazteen bizi estila sare sozialetan asko mugitzen denez, gure musika zabaltzeko beste bide batzuk aurkitzen gabilta; aurrerapen

kanta bat atera dugu, disko hau orain, hor gabilta bi-deoklip batekin...

**Estilo baten aurkikuntzan ari zinetela aipatzen zeniguten lehen kontzertuaren bezperatan. Disko honek estilo aurkikuntza horri erantzuten dio?**

**M.A.:** Kanta guztiak dira desberdinak; batzuk lasaigoak, besteak indartsuagoak, oso estilo desberdinekoak. Esperimentatzen ari garela esango nuke.

**A.Z.:** Bada “plus” interesgarria, kante izan dezaketen freskotasuna, mota ezberdinekoak izatea. Estiloa dezente aldatzen dugu. Aprezio handia diot aukera hori izateari, estilo bakarrera mugatu gabe. Aniztasun hori mantentzea polita litzateke. Garaten grabatzera sartu ginenean, Martxel Arkarazok gure soinua aurkitzeko lan horretan piloa lagundu zigun. Hor dezenteko pausoak eman ditugu.

# “Kontzertu formatu hau berria da guztiontzat”

**NOAUA! Santueneko Kultur Birako lehen kontzertua esperimentzia berria izan zen. Zuen lehen emanaldia, jendea eserita... Zer moduzkoa?**

**E.E.:** Liherrekin jo genuen. Lehen kontzertua, 200etik gora lagun, jendea eserita, begira-begira... Zirrara sorrarazi zigun, baina erantzuna oso ona izan zen. Publikoaren “feedback” hori jaso dugu eta gus-tura. Formatu honetan jende desberdina animatu da.

**“Ohiko egoeran” helduko ez zineten jende batengana aile-gatu zineten?**

**J.M.A.:** Formatu hau guztion-tzako berria da. Joera egon liteke lotzeko musika lasaiare-kin edo bakarlari batekin, edo dantzagarria ez den zerbaite-kin. Baina erakutsi da, rock musika edo musika dantza-garria, alaia ere ahal dela egin formatu horretan. Formatu hauetan parte hartzera ausar-tu behar da, talde ezberdinei aukera emanez.



Ameba taldeko kideek Santuenean eskaini zuten lehen kontzertua. Kultur Biraren baitan, Liher taldearekin batera.

## AMEBA

**“Kultur Birak bultzada handia eman zigun. Egoera txar hau gainditu artean, ahalegina asko eskertzen da”**

**A.Z.:** Ikusleengan progresio handia ikusi dut gure kontzer-tuetan. Santuenean dena berria zen. Zortea dugu gure lagunak jo ditugun ia kontzertu guztie-tara joan direla. Santueneko kontzertua eta Zarauzkoa ikusi

eserita baita nola ari ziren go-zatzen, bizitzen... Ez genuke formatu honetara ohitzea nahi, baina hau ere eramaten jakitea garrantzitsua dela deritzogu.

**J.M.A.:** Zarauzko Putzuzulo gaztetxean jo genuen duela aste batzuk, protokolo guztiak bete ziren, baina beste giro bat zegoen.

**Egungo egoeran, Kultur Bira bezalako alternatiba bat la-gungarria zaizue?**

**A.Z.:** Bai, gure kasuan bultza-da handia eman zigun. Egoera

txar hau gainditu artean forma-tu hau mantentzea, ahalegin hori asko eskertzen da.

**Ahaztu gabe era berean egoe-ra hobetuko balitz...**

**A.Z.:** Bai, ahaztu gabe ez dugu-la ohitu behar guztiz kontzer-tuak hala ikustera. Baina auke-rak ez dauden tokitik aukera berriak sortzeko ahalegin hori egitea, antolatu dutenen alde-tik garrantzitsua da, eskertzen da, eta beharrezkoa da.

**J.M.A.:** Deia egingo nieke erakundeetan ez dauden herri-ko eragile horiei guztiei, sinetsi dezatela beraiek ere gai direla halako ekimenak antolatzeko, modu seguruan egin dira kon-tzertuak.

**“Ezin daitekeela egin” esaldia erabat lurperatua geratua da ezta?**

**M.A.:** Egoera honetan zer ahal dugun egin begiratu behar dugu eta hortik tira. Ezin du-guna egin asko da, baina egin daitekeena ere asko da.

# “Denek elikatu gaituzte eta gu haiek elikatzen saiatuko gara orain”

**NOAUA! Euskal kultur gintza zer egoeratan ikusten duzue?**

**J.M.A.:** Pandemia aurretik gu-txietsitako espazio bat zen, eta orain, pandemian are eta gehiago. Hasieran joera bazen nire iritziz, biziraupen horre-tan erakutsi beharra une oro hor gaudela. Eman zigun zer ikasia, indarrak batzeko. In-guruan sare batzuk sortzen hasi dira, Euskal Herri mailan ere kultur gintzan aurrerapau-so batzuk eman nahi dira. Luze ari da jotzen hau guztia, ez baduzu plaza bat energia gastatzen doa.

**Bizi dugun egoeran, arnasgu-nea da kultura. Zuen emanal-**

**dia ere izatez Inauterien as-teburuan programatu da. Zer sortzen dizue egoera berezi honetan disko berri bat aur-kezteko kontzertuak?**

**A.Z.:** Ez nintzen oroitzen Inaute-rien asteburua zenik ere. Halere ez nuen irudikatuko Inauterie-tan diskoa aurkezten. Formatu lasaiagoa nahi genuen, eseri-ta ikusteko. Aukera ona dugu alde horretatik Sutegin, aforo kontrolatua eta halakoak egite-ko aukera ematen digu.

**Diskoak, Sutegin salgai Zuen diskoaren aurkezpen kontzertura doanak zer aurki-tuko du?**

**J.M.A.:** Sutegin izango da, Kul-

tur Biran egin diren ekitaldien antzera, usurbilkultura.eus plataforman eman beharko da izena doan. Bertan salgai jar-riko ditugu gure diskoak eta kamisetak lehen aldiz. Garai hauetan kontzertua izatea bai da ezohikoa, oso berezia.

**J.M.A.:** Diskoan aipaturiko eske-rrak gogorazi nahi genituzke; Martxel Arkarazok ikaragarri lagundu digu grabaketan.

**A.Z.:** Sutegin soinuarekin lagun-duko digu. Sara Etxeberriak egin digu diskoaren eta kamiseten diseinua. Aitzaga tabernak diru laguntza bat eman zigun gure proiektua bultzatzeko. Garate-ko grabaketaren esperientzia ikaragarria izan zen, udale-

kuetara joatea bezala. Jendea etorri zen gu animatzera. Babes handia jaso genuen, lagunena, espero ez genuen jendearena. Guztiei eskerrak. Pena handiz atera ginen han-dik.

**M.A.:** Garaten eta egin dugun bide osoan harrera ezinho-bea egin digute. Lagunen, familiaren babes handia izan dugu uneoro eta oso esker-tzekoa da.

**Diskoaren izenburuari are ohore handiagoa egiten dio horrek guztiak ezta?**

**M.A.:** Denek elikatu gaituzte eta gu haiek elikatzen saia-tuko gara orain.



# Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari buruzko saioa

Usurbil sagardoaren bihotza, sagardoaren kultura ziklo honen baitan Alkartasuna Usurbilgo Baserri-tarren Kooperatibak “sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari” saioa antolatu du otsailaren 26an (ostirala) 15:30ean Potxoenean.

Aitor Etxeandiak bideratuko duen hitzordurako izena aurrez eman beharko da usurbilkultura.eus atarian, alkartasuna@usurbil.com helbidean edo 943 361 114 telefono zenbakian.

**Sarrera kopurua mugatua da**  
“Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira: ekoizpena-



Aitor Etxeandiak bideratuko duen hitzordurako izena aurrez eman beharko da.

## SAGASTIEN KIMAKETA

**“Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira”**

ren hobekuntza, arbolaren erregulazioa fruta adarrak

sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu...”, Alkartasunatik aditzera eman dutenez. “Ongarriketari desberdinen helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo sagastietan egingo dira”.

# Energiaren udal-bulegoa zabalik

Energiaren alorrean herritarrei aholkularitza zerbitzua eskainiko dien bulegoa ireki du Usurbilgo Udalak. Artzabalen izango du egoitza, eta asteartetan goiz partean izango da zabalik 4 ordutik.

“Udalaren energia kontsumoaz arduratzeaz gain, herritarrentzako aholkularitza ere emango du: fakturazioari buruzko informazioa emango du, batetik bat, herritarrek euren fakturetan aurreztu ahal izan dezaten. Horrez gain, zer nolako kontratua duten ulertzen lagunduko die, aurrera begira autonomoak izan daitezen”, Udaletik berri eman dutenez.



“Udal-bulegoak herritarrentzako aholkularitza emango du: fakturazioari buruzko informazioa emango du, batetik bat, herritarrek euren fakturetan aurreztu ahal izan dezaten”.

## Energia bulegoa

■ Ordutegia: 9:00-13:00 (astelehenetik ostiralera).  
■ Tokia: Artzabalgo lokalean.

■ Bertaratzeko aurrez hitzordua eskatu:  
943 57 94 17  
energia@usurbil.eus

## Otsailaren 10ean hasiko da “Amatasun bizigarria” tailerra

Otsailaren 10ean, 17an eta 24ean 17:00-20:00 artean Potxoenean, Ainara Gorostitzu Mujikak bideratuta. Tailerrerako izena bideotatik eman ahal da; usurbilkultura.eus atarian edo 943 377 110 telefono zenbakira deituta. “Gaur eta hemen amatasuna exigente eta zail egiten duten hariak ikusi eta teoria feministen eta amatasunaren historiako ekarpenekin, hausnarketa pertsonalekin eta talde dinamikekin amatasunaren praktika eta esperientzia bizigarriagoak bilatzea izango da ikastaroaren egitekoa, beti ere, egite horrek dakarren ahaldundutza eta interpelazio politikoa ere helburu izango ditugularik”.



Ainara Gorostitzu Mujikak gidatuko du tailerra.

## Sagardo Berriaren Eguneko ospakizuna, bertan behera

Otsailaren 3an ospatzekoa zen “XXVIII Sagardo Berriaren Eguna”. Pandemia egoeraren gaudenez, ez ospatzea eta ekitaldia bertan behera uzteko erabakia hartu dute. Sagardoaren Lurraldea elkarteak ordezkariak ohar bidez jakinarazi dute albisteak.

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**ARRANDEGIA PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m<sup>2</sup> terraza, 8m<sup>2</sup> trastelekua, 24m<sup>2</sup> garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

**Alokairuan**

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera 626388531

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegiaren.

680 483 164

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagiria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo inter-

na moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informekin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldean umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduen. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Intersatuok deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osoz edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan

edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

**BESTELAKOAK**

Usurbil inguruan baratza lantzeko lur sail baten bila nabil. 606601235

Egur eta ikatz sukalde ekonomika saltzen dut. Deville marka frantsesa. Barruan labe handi bat, labearren azpiko tiradera eta errautsak biltzeko gaitasun handiko bandaja bat ditu. Prezio negoziagarria. 696763868/699723314

Perikito bat galdu da Puntapax inguruan. Urdina, bularraldean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maiden)

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak June!**

Otsailaren 1ean 9 urte egingo dituzu. Besarkada eta muxu handi bat familia guztiaren partez.

**Zorionak Pau!**

7 urte bete dituzu eta primeran ospatu dugu elkarrekin. Muxu handi bat etxekoan partetik!!

**Zorionak Unax!**

Otsailaren 4an egingo dituzu urteak, muxu pottoloak hemendik Andatzaraino!!

**Zorionak Eire!**

Muxu handi bat Peru, aita eta amaxoren partetik.

**Heriotzak****Juan Otamendi****Jauregi**

Urtarrilaren

30ean hil zen,

90 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 04** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 05** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 06** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 07** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 08** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 09** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 10** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

**Osteguna 11** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 12** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 13** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 14** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

# Agenda otsaila

## 03 asteazkena

■ **Hizkuntz eskubideei buruzko formazio saioa.** 18:00etan Potxoenean. Izen ematea: doan (urtarrilaren 29a baino lehen egin behar zen, [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) atarian).

## 04 osteguna

■ **Pelaioenea. Kalezartarren auzo ekipamenduari lotutako 3. gogoeta gunea.** 18:00etan Haur Eskolan.

## 07 igandea

■ **"Asto erregea" haurrentzako euskarazko filma Sutegin.** 17:00etan. Sarrera 3 euro. Aurrez eskuratu behar da [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) web orrialdean.

## Igande honetan, zinea Sutegin: "Asto erregea"

**H**aurrentzako euskarazko zine zikloaren baitan, *Asto erregea* filma eskainiko dute igande honetan Sutegin. Sarrerak eskuragarri dira [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) atarian.



Sarrerak aldeztatik aurretik eskura daitezke 3 eurotan [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) web orrialdean.

### Otsailak 7 igandea

- 17:00etan Sutegin.
- Sarrera 3 eurotan eskura daiteke [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) atarian. Kopuru mugatua izango da.
- Sinopsia: Oihaneko buru Lehoi Erregea erretiratzekotan da eta ondorengoa hautatzeko hauteskundeak deitzea erabaki dute. Ildo honi segiko dio "Asto erregea" ikus-entzunezkoak.

## Hizkuntz eskubideei buruzko formazio saioa Potxoenean

### Otsailak 3, asteazkena

Pandemia-egoerak biderkatu dituen eskubide-urraketen aurrean herritarrek zer tresna (Akuilari...) eta zer berme dituzten azalduko du Behatokiak.

- 18:00etan Potxoenean.
- Izen-ematea urtarrilaren 29a baino lehen egin behar zen [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) atarian.

## Kalezartarren auzo ekipamendu berriari lotutako bilera

### Otsailak 4, osteguna

- 18:00etan Haur Eskolan: kalezartarren auzo ekipamenduari lotutako 3. gogoeta gunea.
- Gaia: "Espazioaren antolaketarako proposamena eta Pelaioenearen kudeaketa eredua eta funtzionamendua".
- Deitzailea: Usurbilgo Udala.

### Datozenak

## "Berdintasunean zaintzen" zikloa hasiera doa

### Otsailak 10, 17, 24 (asteazkenak)

- 17:00-20:00 "Amatasun bizigarria" tailerra Potxoenean, Ainara Gorostitzu Mujikak bideratua (informazio gehiago, 16. orrialdean).
- Izen ematea: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) / 943 377 110 / [parekidetasuna1@usurbil.eus](mailto:parekidetasuna1@usurbil.eus)

### Martxoak 6, larunbata

- Emakumeen Etxearen parte hartze prozesuko emaitzen aurkezpen ekitaldia eta eskertza parte hartzaileei.

### Martxoaren 8ko astean

- Simone de Beauvoirren "Bigarren sexua" sortze lana euskaratu duen Irene Arraratsen hitzaldia.

### Martxoko azken asteburua

- Mundualdiaren edizio berezia: aitor-tza ekitaldi berezia. Aztikerren ikerketaren emaitzen eta Maialen Unanue eta Ibai Arrieta herritarrek Usurbila etorritako migranteen lekukotzekin sortutako dokumentalaren aurkezpena.

### Apiriletik aurrera

- "Nola zaindu", zaintza eredua beregiztatutako parte hartze prozesua.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

**Josue**  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Zuen publizitatea hemen**  
943 360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
[uraitz@uraitz.com](http://uraitz@uraitz.com) USURBIL





# URDAIRA

## Sagardotegia

**OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDETAN irekita**  
 osasun neurri guztiekin  
 ERRESERBA EZAZU!

**Aginaga 943 37 26 91**



*Freskagarri Naturala!*

Sagardo berriak dasta  
 ditzakezue segurtasunez  
 gure sagardotegian!

**SAIZAR**

Sagardotegia [www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



**FUNERARIA GONZALEZ**  
 EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU  
 BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK

**zerbitzu pertsonala,  
 eta familia bakoitzari egokituta**  
 ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU  
 GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN  
 ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

**943 36 21 63 (24 orduz)**

[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



*%100 bertako sagarra*

**OSTIRAL, LARUNBAT  
 ETA IGANDETAN IREKITA  
 (ERRESERBAREKIN)  
 osasun neurri guztiekin**

*Ixotxetik sagardoa  
 jarraitu usadioa!*

**AIALDE BERRI**

Santuenea,  
 Telf: 943 36 50 31

**SAGARDOTEGIA**



# OSASUN GIDA 2021



## USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:  
lente progresiboetan,  
irakurtzeko lenteetan  
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareta doan

### 2x1

PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



## Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

## zenta

### ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure  
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen  
salmenta eta alokairua,
- Etxez-etxeko zerbitzu  
tekniko espezializatua,
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin  
hitzarmena

[www.zenta.es](http://www.zenta.es)

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

# Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa  
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

# Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

[www.oinutsik.com](http://www.oinutsik.com) - 943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren  
azterketa bat egitera!

*sustiratu osasuna onetatik*